



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 9a

35. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A :

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-26/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita kirol egokitua berariaz babesteko plan bat taxutu dezan. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita LGTBI+ ikuspegia jaso dezan foru-eskumeneko gizarte-politikak diagnostikatu, planifikatu eta garatzean. Javier Arza Porrás jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-26/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita kultura-ekitaldietara joateko garraio-zerbitzurako programa pilotu bat taxutu dezan modu deszentralizatuan, programa berekiak nahiz dirulaguntza publikoen bidez finantzaturako programak izan, toki-entitateen parte-hartzearekin. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- 11-26/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten baitu, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta. Nafarroako Alderdi Popularrak talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2026an goi-mailako arte-ikasketak eta profesionalak ematen dituzten Nafarroako ikastetxe publikoekiko elkarrizketa-mahai bat eratu dezan, sektorearen beharrezko aztertze. Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkeztu du (9. or.).
- 11-26/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak premiatzen baitira erantzun bateratua eman diezaioten suteen prebentzioari eta haiei aurre egiteari, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren esparruan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (12. or.).
- 11-26/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an. Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu du (14. or.).
- 11-26/MOC-00023. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoaren adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten baitu nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoari eragiten dion planteamendu oro. Mozioa erretiratzea (16. or.).

- 11-25/MOC-00163. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebiderearen obrak lizitatzeko prozedura abiaraz dezan. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsi du (16. or.).
- 11-26/MOC-00011. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egungo landa-eskolaren egoera berariaz aztertzeo mahai bat bultza dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsi du (17. or.).
- 11-26/DEC-00022. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Parkinsonaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (17. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-26/SDC-00001. 2026ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia (19. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-26/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premia-tzen baita kirol egokitua berariaz babesteko plan bat taxutu dezan**

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premia-tzen baita kirol egokitua berariaz babesteko plan bat taxutu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Horren jarraipena Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eginen da.

Zioen azalpena

Kirola funtsezko tresna da desgaitasuna duten pertsonen osasuna, gizarteratzea eta garapen pertsonala sustatzeko. Hainbat azterlan zientifikok eta nazioarteko erakundek adierazi dute kirol egokitua onurak dituela ongizate fisikoari, autoestimuari, gizarteratzeari eta parte-hartze komunitarioari dago-kienez.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Espainiak 2008an berretsiak, 30. artikuluan aitortzen du desgaitasuna duten pertsonak eskubidea dutela jolas-, aisia- eta kirol-jardueretan parte hartzeko, gainera-koen baldintza berberetan.

Nafarroan, kirol egokitua eta kirol inklusiboa sustatzen duten elkarte, federazio eta kirol-kluben lanari esker, nabarmen handitu da azken urteotan kirol-jarduera antolatuetan parte hartzen duten pertsona horien kopurua.

Hala ere, kirol-klub eta -elkarte batzuek adierazi dute zailtasunak dituztela kirol-instalazio publikoetara sartzeko, batez ere ordutegiak eta kirol-espazioen erabilgarritasuna esleitzeari dagokionez. Kasu askotan, lehiaketa federatuko taldeekin edo udal-jarduera arruntekin erabiltzeko lehian ibili behar dute klub horiek, eta horrek haien garapen-ahalmena mugatzen du.

Kirol-instalazio publikoek sarbide-baldintza ekitatiboak bermatu behar dituzte, bereziki kirola egiteko oztopo handienak dituzten kolektiboentzat.

Europako hainbat herrialdek eta toki-administrazioek neurri espezifikoak garatu dituzte desgaitasuna duten pertsonak kirola egin ahal izatea bermatzeko, ordutegi babestuak erreserbatuta, instalazioak lehentasunez lagata edo kirol inklusiboko udal-programen sortuta.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Nafarroan kirol egokiturako eta kirol inklusiborako sarbide eraginkorra bermatuko duen estrategia espezifiko bat bultzatzea.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kirol egokituari laguntza berezia emateko proiektu bat egin dezan, honako puntu hauek abian jarritz:

1. Kirol-instalazioetarako lehentasunezko sarbidea

Toki-entitateekin lankidetzan kirol-instalazio publikoetara sartzeko lehentasunezko protokolo bat egin dezan kirol egokituko edo desgaitasuna duten pertsonen klub eta elkarteentzat, ordutegiak esleitzeko baldintza ekitatiboak bermatzeko.

2. Kirol egokiturako ordutegiak erreserbatzea

Toki-entitateek ordutegi espezifikoak gorde ditzaten udalen kirol-instalazioetan kirol egokitu edo inklusiboko jardueretarako, bereziki eskola- eta lan-jarduerarekin bateragarriak diren ordutegietan.

3. Nafarroako Kirol Inklusiboaren Sarea

Nafarroako Kirol Inklusiboaren Sarea sortzea bultzatzea dezan, kirol-federazio, elkarte eta gizarte-entitateekin lankidetzan, honako hauek ahalbidetzeko:

- kirol-programa egokituak koordinatzea
- instalazioak eta baliabideak partekatzea
- lehiaketa inklusiboak sustatzea

4. Kirol egokituko klubei laguntzeko programa

Desgaitasuna duten pertsonen kirol-klubei laguntzeko programa espezifiko bat gara dezan, honako hauek barnean hartuta:

- kirol-instalazioak erabiltzeko laguntzak
- kirol-material egokitua eskuratzeko laguntza
- teknikari espezializatuen prestakuntza

5. Urteko txostena Parlamentuari

Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean, desgaitasuna duten pertsonen kirol-instalazio publikoetarako sarbidea bermatzeko hartutako neurri buruzko txosten bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari.

Iruñean, 2026ko martxoaren 12an

Foru-parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

## 11-26/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBI+ ikuspegia jaso dezan foru-eskumeneko gizarte-politikak diagnostikatu, planifikatu eta garatzean

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrask aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBI+ ikuspegia jaso dezan foru-eskumeneko gizarte-politikak diagnostikatu, planifikatu eta garatzean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Javier Arza Porrask, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako gizarte-zerbitzuen sistemaren baliabide, zerbitzu eta zentroetan LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak bermatzeko politikak sustatzeari buruzko mozioa.

Zioen azalpena

Urte luzez LGTBIQ+ kolektiboa osatzen duten mugimenduek eta baita mugimendu feministek ere aurrera eraman duten borrokaren ondorioz gaur da eguna zeinean Nafarroan pertsona ugari bere sexualitatea askatasunez bizitzeko aukera duten.

Baina, eskubide ugari lortu diren arren, hainbat esparrutan urraketak ematen dira edota irabazita-ko lorpenetan atzerapausoak emateko arriskuak

ageri dira. Horregatik ezinbestekoa da antolatuta jarraitzea eta instituzioetatik zerbitzu publiko guztietan berdintasuna, diskriminaziorik eza eta arreta inklusiboa bermatzen duten politikak garatzea.

Alde horretatik, Gizarte-zerbitzuei 15/2006 Foru Legea eredu aitzindaria da gizarte-ongizateko sistemari eskubide unibertsala aitortzeko, erabiltzaileen oinarrizko eskubidetzat hartuz duintasunarekiko errespetua, tratu-berdintasuna eta inguruabar personal edo sozialengatiko diskriminaziorik eza. Printzipio horren arabera, zentro eta zerbitzuek diskriminaziorik gabeko arreta bermatu behar dute, sexu-orientazioa eta identitatea barne.

Gizarte-politiken sistemaren oinarri juridiko hori osatu egin zen LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 18ko 8/2017 Foru Legearekin. Hain zuzen ere, 13. artikuluan jasotzen dituen gizarte-arloko neurrien artean daude hirugarren adinekoen egoitzek, publikoek zein pribatuek, LGTBI+ pertsonak diskriminaziorik ez jasateko duten eskubidea bermatzeko betebeharra; edota sexuaren arabera bereizitako espazioak edo ekipamenduak transexualek, transgeneroek edo intersexualek sentitutako sexua kontuan hartuta erabili ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra.

“13. artikulua. Kolektibo ahulenentzako laguntza eta babesa.

1. Nafarroako administrazio publikoek diskriminazioari aurrea hartzeko eta ikusgaitasuna laguntzeko neurriak hartu beharko dituzte, ahultasun handieneko kolektiboek begira – nerabeak, umeak, hirugarren adineko pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak–, eta lan egiten dute pertsona horien egoera pertsonalagatik horien bizitzari edo osasunari eraso egin diezaieketen egoeren prebentzioan. (...)

3. Nafarroako Gobernuak behar diren mekanismoak ezarriko ditu LGTBI+ adingabeen babes eraginkorrerako, administrazioaren tutoretzapean daudenean, dela adingabeen zentroetan, tutoretzapeko pisuetan edo bizi diren beste baliabide batean; eta haien sexu-joeraren, genero-adierazpenaren eta sexu- edo genero-identitatearen erabateko errespetua eta bizitza baldintza osoak bermatuko ditu.

4. (...)

5. Nafarroako Gobernuak begiratuko du adin kontuengatik bereziki ahulak diren LGTBI+ pertsonak diskriminazio egoerarik jasan ez dezaten.

Foru lege honetan, adingabeen babesa tutoreen edo legezko zaintzaileen bitartekaritza gauzatuko da. Bitartekaritza hori adingabeen babeserako atalaren bitartez egin ahalko da, sexu-identitatea ukatzearen ondoriozko sufrimendu- edo indefentsio-egoerak gertatzen direnean.

Zahar-etxeetan, publiko zein pribatuetan, LGTBI+ pertsonak bermatuko zaie bereziak ez izateko eskubidea, gizabanako gisa zein harreman sentimentaletan edo bestelakoetan.

6. Behar diren neurriak hartuko dira, sexuaren arabera bereizitako guneak edo ekipamenduak, adingabeen zentroetan, tutoretzapeko pisuetan, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroetan, zahar-etxeetan, edo bereziki ahulak diren pertsonak hartzen dituen gainerako edozein baliabideetan, pertsona transexual, transgenero edo intersexualek erabili ahal izan ditzaten sentitzen duten sexuaren arabera.

7. Nafarroako Gobernuak babes berezia emanen die kolektibo batzuetako pertsonak, zeinetan diskriminazio handiagoa egon daitekeen sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu edo genero-identitatearen arabera, tradizio edo kultura kontuengatik”.

Marko normatibo garatua izan arren, azken boladan agerian geratu den errealitate bat da LGTBIQ+ kolektiboko kideek urteen poderioz lortutako eskubideei uko egin behar izaten dietela zaharren egoitza bezalako baliabideetan sartzeko momentuan. Kasu zehatz honetan, pertsona batek izan ditzakeen ohiko zailtasunei eta galerei (ingurune hurbila galtzea, etxetik ateratzea, edota jende ezezagunarekin bizi behar izatea) LGTBIQ+ kolektiboaren kasuan beste oztopo bat gehitu behar zaio: euren bizitzetan lortutako ikusgaitasunari uko egin behar izatea, eta heterosexual gisa bizi behar izatea, haien nortasuna ezkutatu.

Zailtasun eta eskubide-urraketa horiek LGTBIQ+ elkarrekin ikertu dituzte, interes berezia jarriz adineko LGTBIQ+ pertsonak nola bizi diren eta zer gertatzen den gizarte-zerbitzuak edo iraupen luzeko zaintzak behar dituztenean. Zentzu horretan, ondorio nagusiek adierazten dute adineko LGTBIQ+ pertsona askok ez dutela konfiantza osoa baliabide instituzionaletan, beldurra dago berriz ere orientazio sexuala edo genero-identitatea ezkutatzeko egoitzetan, familia-sareak murriztagoak izaten dira, eta horrek areagotu egiten du gizarte-zerbitzuekiko mendekotasuna.

Hori dela-eta, berebizikoa deritzogu aurrera pausoak emateari, Nafarroako gizarte-zerbitzuen sisteman eta, kasu honetan, Nafarroako gizarte-zerbitzuen sarean beharrezkoak diren aldaketak eta eguneraketak emateko, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia gure politika publikoetan xertatuz.

Proposamen hau ikuspegi eraldatzaile batekin egiten dugu, pertsona guztiak berdintzat hartzen dituen gizarte baterantz aurrera egiteko helburuarekin, bizitza-zikloaren fase guztietan.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru eskumenekoak diren gizarte-politiken diagnosian, plangintzan eta garapenean LGBTIQ+ ikuspegia txerta dezan, gizarte-ekintzaren arloan prebentzio-neurriak zehaztuz diskriminazioak saihesteko helburuarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-zerbitzuen foru-sareko profesional guztiei tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari eta LGBTIQ+ eskubideei buruzko oinarriko sentsibilizazioa eta prestakuntza eman diezaien.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txerta dezan gizarte-arretako baliabideen plangintzan eta kudeaketan (haurtzarora, nerabezarora, desgaitasuna, adinekoak, etxegabetasun-egoeran dauden pertsonak), diskriminaziorik eza eta identitatearekiko eta orientazioarekiko errespetua bermatuz, eta LGBTIQ+ kolektiboaren eskubideak errespetatzeko protokolo espezifiko bat abia dezan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

## **11-26/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultura-ekitaldietara joateko garraio-zerbitzurako programa pilotu bat taxutu dezan modu deszentralizatuan, programa berekiak nahiz dirulaguntza publikoen bidez finantzaturako programak izan, toki-entitateen parte-hartzearekin**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultura-ekitaldietara joateko garraio-zerbitzurako programa pilotu bat taxutu dezan modu deszentralizatuan, programa berekiak nahiz dirulaguntza publikoen bidez finantzaturako programak izan, toki-entitateen parte-hartzearekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du mozioaren jarraipena egin dezan.

Zioen azalpena

Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa eta foru-erkidegoaren aurrekontuak, urterik urte, baliabide publikoak bideratzen ari dira gizarte- eta lurralde-ikuspegia duten kalitatezko kultura-ekitaldiak programatzera eta koproduzitzera, pertsonak ekin-tza politikoaren erdigunean jarriz.

Koherentea da kultura-edukietan egindako inbertsio horrekin batera sarbide-politika aktibo berriak egitea, baliabide horiek Nafarroako herritar guztiei itzuliko zaizkiela bermatuz, eta ez soilik hiri-buruaren inguruan bizi direnei.

Kulturaren lurralde-ikuspegiak berekin dakar ez soilik programazioa deszentralizatzea —herrietara ikuskizunak modu deszentralizatuan eramanez—, ezpada herritarrei herrietara heltzea eta tamaina txikiagoko herrietan egiten diren kultura-ekitaldietan parte hartu ahal izatea erraztea ere. Bi ekintza horiek osagarriak eta beharrezkoak dira benetan inklusiboa eta kalitatezkoa den kultura-politika baterako.

Nafarroak dagoeneko baditu esperientzia finkatuak lurralde-ikuspegiak duten interes orokorreko kultura-zerbitzuei lotutako garraio publikoaren arloan. Liburutegi Zerbitzuaren bibliobus zerbitzu ibiltaria irakurketa eta baliabide bibliografikoak liburutegirik ez duten udalerrietara hurbiltzen ari da. Duela gutxiago, Arena Bus zerbitzuak, zeina Nafarroa Arenara iristea errazteko jarri baitzen abian, frogatu du herritarren parte-hartze handiagoa dakarrela kultura-eskaintza eta mugikortasun-soluzioa uztartzeak.

Nafarroa jardunbide egokien lurra eta beste lurralde batzuetarako eredu da, lurraldeari atxikitako

ko kultura-politiketan berrikuntza eta ausardia duelako eta erdigunean jartzen dituelako pertsonak eta kulturarako sarbidea, hori oinarrizko eskubidea den aldetik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da kultura-ekitaldietara joateko garraio-zerbitzurako programa pilotu bat taxutu dezan modu deszentralizatuan, programa berekiak nahiz dirulaguntza publikoen bidez finantzatutako programak izan, Nafarroako toki-entitateen parte-hartzearekin.

2. Aldez aurretik, proiektu pilotua abian jartzeko beharrezkoak diren azterketak, toki-entitateekin egin beharreko lanak, bideragarritasun-aurreikuspenak, garraio-formulak eta intereseko kultura-ekitaldien azterketa egin dadin premiatzen da.

Iruñean, 2026ko martxoaren 25ean

Eleduna: Ainhoa Unzu Garate

## **11-26/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten baitu, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta**

### **NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten baitu, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean eztabaidatzeko eta mozioaren jarraipena batzorde horretan bertan egiteko:

Zioen azalpena

Euskara Nafarroako Foru Komunitateko kultura-ondarearen funtsezko elementua da, eta, ondorioz, baita nafar guztiena ere, haien ideologia edozein dela ere. Berezko hizkuntza da, aberastasun historiko handikoa; hortaz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da hura babestea eta zaintzea.

Hori bai, kultura-ondasunen defentsak eta kontserbazioak ezin dute edozein jokaera justifikatu.

Denak ez du balio helburu hori lortzeko, eta ezin da edozein jokaera zalantzarik gabe onartu.

Korrikaren azken edizioan, martxoaren 22an (igandea) Iruñetik igaro zenean, herritar asko bildu ziren euskara sustatzeko eta defendatzeko asmo laudagarriarekin. Hala ere, ekimen horren espirtua larriki hutsaltzen duten portaerak gertatu ziren.

Zehazki, parte-hartzaile batzuek ekitaldia baliatu zuten Korrikaren xedearekin zerikusirik ez zuten aldarrikapen politikoak egiteko. Are larriagoa izan zen ETA erakunde terroristako kideen gorespentadierazpenen presentzia, haiena baita Nafarroan eta Espainia osoan ehunka pertsona hil, mehatxatu, bahitu eta estortsionatu izanaren ardura.

Ez da gertaera isolatua izan, zeren horrelako pankartak eta sinbologia Korrikaren hainbat ediziotan erakutsi baitira urteetan zehar. Jokaera horiek ezin dira eta ez dira toleratu behar. Oraingo honetan, gainera, adingabe bat ikusi ahal izan zen lekukoa eramaten, heldu batekin batera, Tomás Caballeroren eta Francisco Casanovaren hilketen ardura zuten ETAko bi kideren irudiekiko kamisetak jantzita biak ala biak.

Adingabeak helburu politiko edo ideologikoekin erabiltzeak berez merezi du gaitzespenik sendoena, baina gertaera horiek guztiak terrorismoaren biktimen eta haien familien duintasunaren aurkako irain onartezina dira, bai eta errespetuaren eta bizikidetzaren oinarrizko printzipioen aurkako eraso ere.

Ekintza horien protagonistak gutxiengoa izateak ez dio arazoari larritasunik kentzen, eta ez du erantzukizunetik salbuesten AEK, ekitaldiaren antolatzailea, zeinak zaindu egin behar baitu errespetuzko eta bizikidetzako oinarrizko arau batzuen arabera garatzen dela lasterketa. Erantzukizun hori are nabarmenagoa da jokaera horiek ibilbidean zehar behin eta berriz eta agerian gertatzen direnean.

Nafarroa hainbat hamarkadatan bizi izan da ETAREN izuaren pean, intolerantziak, derrigortzeak eta pentsamendu eta ideia batzuk askatasunez adierazteko beldurrak markatutako testuinguru batean. Jarduera armatua behin betiko amaitu zenetik zenbait urte igaro diren arren, oraindik ere badira erabateko bizikidetzaren eragozten duten zauriak. Horregatik, hain zuzen ere, ez litzateke onartu behar biktimak umiliatzea edo mespretxatzea dakarren ekintzarik.

Benetako bizikidetzaren eraikitzeak, terrorismoaren biktimen memoria eta duintasuna babestu behar dira eremu publiko guztietan, indarkeria legitimatzeko edo goresteko edozein modu saihestuz, bai eta gure historia hurbilaren etaparik ilunenetako baten arduradunak goraiatzeko modua ere.

Testuinguru horretan, ordezkari publikoek ezin dute ezikusiarrena egin. Beren erantzukizun instituzionalak eredugarritasunez jokatzera eta balio demokratikoen errespetua bermatzera behartzen ditu. Horregatik, bereziki gaitzesgarria da Joseba Asiron Iruñeko alkateak non eta ETAko presoan aldeko mezua erakusten ziren ingurune batean parte hartzea, hori bateraezina baita biktimekiko errespetu-betebeharrarekin eta ordezkatzeko duen funtzioarekin.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten du, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta administrazio publiko guztiak premiatzen ditu finantzaketa publiko oro kentzeko ekitaldi edo jarduerari, baldin eta horietan terrorismoa gosten bada, erakunde terroristak babestu edo justifikatzen bada edo biktimak umiliatzen badira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaur egun mota horretako jarduerari esleitutako baliabide publikoak funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetako hezkuntza-programetara bideratu ditzan, belaunaldi berriei Espainiako eta Nafarroako terrorismoaren historia hurbila, ondorioak eta biktimei zor zaien errespetua helarazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak ez du Korrikako kilometro gehiagorik erosiko, aurtengoak bezalako egoerak saihesteko.

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Eleduna: Javier García Jiménez

## **11-26/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2026an goi-mailako arte-ikasketak eta profesionalak ematen dituzten Nafarroako ikastetxe publikoekiko elkarrizketa-mahai bat eratu dezan, sektorearen beharrianak aztertzeko**

### *ENEA MAIZ ULAIAR ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2026an goi-mailako arte-ikasketak eta profesionalak ematen dituzten Nafarroako ikastetxe publikoekiko elkarrizketa-mahai bat eratu dezan, sektorearen beharrianak aztertzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako Eneka Maiz Ulaiar andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako arte-ikasketei buruzko honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin: Hezkuntza Batzordeak eginen du mozio honen jarraipena.

Zioen azalpena

2024an onetsi zen Arte-ikasketen Legea (1/2024 Legea, ekainaren 7koa, zeinaren bidez arautzen baitira goi-mailako arte-ikasketak, ikasketa horiek ematen dituzten ikastetxeak eta irakasleak eta ezartzen baitira ikasleen eskubideak eta betebeharrak). Legeak orobat arautzen ditu Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen arte-ikasketa profesionalen antolamenduari eta baliokidetasunei buruzko zenbait alderdi. Lege hori, jakina, mugarririk esanguratsua da, eta guztiz beharrezkoa, ikasketa horien historian Estatuan, lehen aldiz arautzen baititu ikasketa horiek.

Goi-mailako arte-ikasketei dagokienez, legea heldu da egiaztatu delako orokorra zela berariazko erregulazio baten eskaria, zeina behin eta berriz gauzatu baita irakasleek, ikasleek eta arte-profesionalak egindako errebendikazioen bidez nahiz talde parlamentarioek azken urteotan aurkeztutako legegintza-ekimenen bidez.

Erronka horri aurre egiteko, beharrezkoa zen ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa emateaz gain, esparru pertsonal, laboral eta sozialerako prestakuntza erabilgarria ere ematea, Europar Batasunak defendatzen dituen artea eta kultura babesteko eta sustatzeko estrategia koordinatuekin bat etorriko dena, eta nazioarteko eremuetan mugikortasunerako eta zirkulazio aserako prestatutako kualifikazio handiko arte-profesionalak lortzera bideratua. Zehazki, goi-mailako hezkuntzako gradu- eta graduondo-maila dagozkien ikasketen esparruan, Boloniako prozesuak eskatzen du ikasleak eta haren gaitasunak ardatz dituzten eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoekin pareka daitezkeen prestakuntza-sistemak sustatzea. Eskaera horiei erantzuteko, beharrezkoa da ikasketen antolamendu berri baterako oinarriak ezarriko dituen arau bat, ikasketa-planen diseinu berezituago eta malguago baterantz mailaz maila aitzina egiteko aukera emanen duena, gero eta herritar gehiagorengana iristeko erakargarria izanen dena, eta, aldi berean, testuinguru desberdinen eskaera zehatzetara egokitzeko eta ikasleei kualifikazio- eta espezializazio-mailarik handienak emateko gai izanen dena.

Bestalde, gaur egun funtzionatzen ari diren arte-ikasketetako ikastetxe eta eskolek, taxu eta titulartasun oso anitzekoek, eginkizun oso garrantzitsua izan dute eta dute oraindik ere; ezinbestekoa da, ordea, formulazio jada gaituzte haragoko ikastetxe-eredu berriak sendotzen laguntzea, ingurunearekin loturirik ez zuten erakunde akademiko hutsak baitziren haiek, halako moduan non ezagutzaren sorreran parte hartuko duten eragile bihurtuko baitira, interakzio etengabea unibertitate eta ikerketa-organismo publikoekin, kultura-instituzioekin, enpresekin, administrazioekin eta, oro har, gizartearekin. Saihestezina da, halaber, irakasleei arreta berezia

eskaintzea (horien artean, profesional bikainak daude), gure gizartearentzat ezinbestekoa den eskaintzaren oinarria baitira eta ikasle asko artatzen baitituzte (horien bokazio-motibazioa izanen da etorkizunean arrakasta izateko oinarria). Sistemaren bi osagai horiek dira –ikasleak eta irakasleak–, euren estatusaren eta espektatiben hobekuntzarekin batera, lege honen helburu nagusiak.

Irakaskuntza profesionalen esparruan, beharrezkoa da, halaber, irakaskuntza horien antolamenduari eta baliokidetasunei buruzko zenbait alderdi arautzea, halako moduan non, segurtasun juridikoaren printzipioa errespetatuz, arau-esparru egonkor, integratu, argi eta ziburra sortuko baita, zeinak, irakaskuntza horien ezagutza eta ulermena errazteaz gain, prestakuntza-eskaintza kultura- eta arte-sektoreak behar dituen profil profesioaletara egokitu ahal izatea ahalbidetuko baitu. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da Konpetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazional sortu berriak arte-diziplinei dagozkien eremuetan identifika ditezkeen estandarren definizioa jasotzea, eremu horietan profesionalki jarduteko behar diren gaitasun egokien eta kalitate-estandarraren arabera. Azkenik, ikasketa horiekin lortzen diren titulazioen eta Etengabeko Ikaskuntzarako Kualifikazioen Esparruan ezarritako mailen arteko elkarrekikotasuna ezarri beharra dago, Europako esparruko beste herrialde batzuetan parekagarriak diren ikasketekin bat datozela bermatzeko, eta, horrela, titulazio horiek lortu dituztenen mugikortasuna errazteko.

Ekainaren 7ko 1/2024 Legearen azken xedapenetako bederatzigarrenaren arabera, Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, legea ezartzeko egutegia onetsiko du legea indarrean jarri eta, gehienez, urtebeteko epean. Era berean, uztailaren 8ko 611/2025 Errege-dekretuak lege hori ezartzeko egutegia zehazten du; horretarako, Hezkuntza Ministerioak aurreikusitako Estatuko oinarrizko araudia onetsiko du.

Hortik aitzina, autonomia-erkidego bakoitzari dagokio legea bere lurraldean garatzea. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eta goimailako arte-ikasketak ematen dituzten ikastetxeek arau-esparru berria, ikasketa-planak eta antolaketa berria ezarri beharko dituzte. Arte-ikasketen erregulazio berria lehenbailehen egin beharra dago, hezkuntza- eta lanbide-eremu horren erronkak lehenbailehen lortzeko.

Nafarroan, bestalde, arte-ikasketak ematen dituzten bost ikastetxe publiko daude gaur egun: Iruñeko eta Corellako Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskolak, Nafarroako Dantza Eskola, Pablo Sara-

sate Musika Kontserbatorio Profesionala eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa. Zoriturrez, ikastetxe horietako ordezkariak agerian utzi dute konpondu beharreko egiturazko arazo batzuk daudela eta hezkuntza-sektore horretan hobetzeko tarte handia dagoela.

Horren erakusgarri argia da, adibidez, bost ikastetxe horietako irakasleek bai Legebiltzarrean bai beste instantzia batzuetan salatu duten lan-egonkortasunik eza. Sektorrean, gutxi gorabehera 2000. urteaz geroztik, lan-bitartekotasuneko testuinguru orokorra bizi izan da, 25 urtez baino gehiagoz plaza hutsak etenik gabe bete dituzten irakasleekin. Plaza horietako asko ez dira atera ez ondoz ondo lan-eskaintza publikoetara, ez egin diren merezi-mendu-lehiaketetara, eta ez dira egonkortu.

Hezkuntza Departamentuak, oro har, etengabe baliatu du egiturazko lanpostuak betetzeko aldi baterako kontratazio neurrigabea. Baina arte-ikasketen kasuan, praktika hori askoz ere nabarmenagoa izan da, halako moduan non azken hamarkada hauetan % 70eko bitartekotasuna gainditzera iritsi baita. Gehiegikeria horrek agerian uzten du Hezkuntza Departamentuak kudeatu dituzten gobernuak ez direla behar bezain arduratsuak izan ikastetxe horiei eta haien hezkuntza-proiektuei lan-egonkortasuna emateari dagokionez. Zoriturrez, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroako arte-ikasketei aplikatu izanak ez du arazoa konpondu. Egonkortze-lege ezohiko horrek ez zion modu integralean heldu arazo horri eta, ondorioz, antzinatasun, esperientzia eta bokazio handiko pertsonak ezin izan ziren egonkortu. Eta horrek eragin zuzena du, bai profesional horien bizi- eta lanbide-ibilbidean, bai irakaskuntzaren kalitatean. Eragin hori honako hauetan islatzen da: jarraitutasun pedagogikoa galtzen da, ikastetxeen proiektu artistikoa pobretzen da, ahula da irakasleen eta zuzendaritza-taldearen artean kulturaren eta lanbide-esperientziaren transmisioa, eta ikastetxeen antolaketa ere eragiten dio, lan-prekaritatea kronifikatzen baita.

Duela gutxi, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Abokatutza Nagusiak bere ondorioak azaldu ditu, ea Espainia behartuta dagoen langile finko bihurtzera aldi baterako kontratuak kateatzen urteak daramatzaten bitartekoak. Eztabaida judicial hori ebatzi gabe dago, eta egoera kudeatzen zaila sortzen ari da, bai administrazioentzat, bai ukitutako langileentzat. Europak 1999/70/EE Europako Zuzentaraua bete dezan premiatu du Espainia, 25 urte baitaramatza zuzentaraua behar bezala inplementatu gabe, eta beharrezkoa da egoera hori aldatzea.

Orobat egiaztatu da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan funtzionamendu- eta bizikidetzaz- arazoak daudela eta Hezkuntza Departamentuarekin adostasunik ez dagoela. Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko hainbat lan-bilkuratan eta agerralditan argi geratu da funtsezkoa dela ikastetxearen funtzionamenduari, komunikazioari eta araudiaren erregulazioari buruzko funtsezko zenbait alderdi hobetzea. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa funtsezko pieza da Foru Komunitateko musika-engranajean, ez bakarrik maila goreneko ikastetxe gisa, ezpada garapen kultural eta sozialaren eta talentua atxikitze motor estrategiko gisa ere.

Gainera, Nafarroako arte eszenikoen eremuko ikasle eta irakasleek agerian utzi dute Foru Komunitatean ez dagoela erakundeen babesik arte dramatikoa eta eszenikoko goi-mailako prestakuntzan. Historikoki kulturaren eta antzerkiaren aldeko apustua egin duen erkidegoa da Nafarroa, nahiz eta pertsona batek esparru eszenikoan profesionalizatzeko asmoa duenean ez dagoen prestakuntza-jarraitutasunik. Gaur egun ez dago erakundeen behar besteko laguntza duen goi-mailako zentrorik, ez publikotik ez pribaturik, eta horrek lurralde- eta prestakuntza-hutsunea sortzen du gure erkidegoan. Azken urteotan, handitu egin da prestakuntza errealaren eskaria, eta eskaintza bikoiztu egin da; hori aukera handia da gure erkidegoarentzat.

Ondorioz, premiazkoa da talentuari eusteko formulak sortzea, prestakuntza horietara sartzeko berdintasuna ahalbidetzeko laguntza ekonomikoarekin, Arte-ikasketen Legea betetzeko azpiegiturak handituz, eta Nafarroan etorkizun hurbilean arte dramatikoa eta eszenikoaren esparruan goi-mailako titulazioa izanen dugula bermatuz. Funtsezkoa da prestakuntza hori sendotzeko neurri zehatzak taxutzea, bereziki ikus-entzunezkoen sektorea S4 estrategiarekin argi eta garbi lerrokatuta dagoen eta tokiko talentuarekin kultura-ehuna eta ekoizpen propioa sortzeko funtsezko bidea den une honetan. Horretarako, jada abian diren proiektuak indartu behar dira, lankidetzaz-esparruak eza-

rriz eta foru-erkidegoarentzako aukera estrategikoak bultzatuz.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

– 2026an elkarrizketa-mahai bat eratu dezan goi-mailako arte-ikasketak eta ikasketa profesionalak ematen dituzten Nafarroako ikastetxe publikoekin, sektorearen beharrak aztertzeko, ekainaren 7ko 1/2024 Legea Nafarroara egokitzeko (horren bidez, goi-mailako arte-ikasketak, ikasketa horiek ematen dituzten ikastetxeak eta irakasleak eta ezartzen baitira ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dira).

– Neurriak har ditzan Nafarroako Foru Komunitatean goi-mailako arte-ikasketak eta ikasketa profesionalak ematen dituzten ikastetxeetako irakasleak egonkortzeko, behin-behinekotasunaren abusua 1999/70/EE Europako Zuzentarauan ezarritako estandarretara murriztuz.

– Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren funtzionamendua hobetzeko neurriak har ditzan: Hezkuntza Departamentuarekin sortutako lantaldea indartzea, zuzendaritza-talde adostua sustatzea; bizikidetzaz-plan eraginkor bat ezartzea; katedradunen arte- eta ikerketa-jarduerari lagunduko dion sistema bat ezartzea; zentro bereziaren erregelamendu organiko bat egitea; prestakuntzako, ikerketako eta lankidetzaz-programen sustapeneko sistema on bat antolatzea, bai eta helburu horretarako komenigarritzat jotzen diren beste batzuk ere.

– Arte eszenikoetako prestakuntzaren sektorearekin batera, Nafarroako Foru Komunitatean esparru horretan dauden beharriak azter ditzan, dagoen eskariari erantzunen dion, talentuari eutsiko dion eta prestakuntzarako laguntzak bermatuko dituen prestakuntza-ibilbide integral bat garatzeko.

Iruñean, 2026ko martxoaren 26an

Foru-parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-26/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen baitira erantzun bateratua eman diezaioten suteen prebentzioari eta haiei aurre egiteari, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren esparruan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen baitira erantzun bateratua eman diezaioten suteen prebentzioari eta haiei aurre egiteari, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren esparruan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta, kasua bada, onesteko:

Zioen azalpena

Espainia baso-suteen arrisku estruktural handiena duen nazioetako bat da. Landa-eremuko jarduera ekonomikoa suntsitzen duten politiken ondorioz landa-ingurunea abandonatzeak, suteetarako «gasolina» gisa jarduten duen biomasaren metaketak, mendiaren kudeaketa aktiborik ezak eta gainerregulazio klimatiko gero eta handiagoak kalteberatasun bereziko agertoki bat eratu dute.

Azken uda hauetan, Espainiak aurrekaririk gabeko su-boladak izan ditu. Nafarroa ez da salbuespena izan, eta hamarkada askotan izandako suterik larrienak izan ditu. Galizian, Extremaduran eta Gaztela eta Leonen 350.350 hektarea suntsitu zituen suak; hau da, argi geratu da suak ez dituela “muga”

erregionalak errespetatzen. Errealitate horrek agerian uzten du hondamendi naturalei arrotz zaizkiela muga autonomiko artifizialak. Arlo horretan, espainiarrok gure egunerokotasunean pairatzen ditugun beste askotan bezala, egiazta dezakegu estatu autonomikoa alderdi bateko eta besteko politikarien beharrak asetzeko diseinatu dela, eta ez guztien onerako edo interes orokorrerako.

Arazo nazional baten kudeaketa eskumen eta muga autonomikoetan zatikatzea nahikoa ez izateaz gain, desberdintasunak sortzen ditu prebentzioan eta eremu mugakideen arteko erreakzio-gaitasunean, eta zaildu egiten ditu koordinazioa eta eraginkortasun operatiboa.

Gainera, metatutako esperientziak erakusten du suteen aurka ez dela udan bakarrik borrokatzen, baizik eta, batez ere, neguan. Suteen intentsitatea eta hedapena murrizteko tresnarik eraginkorrena prebentzioa da –mendiak garbituz, sastrakak kenduz, suebakiak irekiz eta mantenduz, egurra aprobetxatuz, azpiegitura hidraulikoak mantenduz eta artzaintza estentsiboa sustatuz–. Hala ere, jarduera tradizional horiek gehiegitan oztopatzen dituzte karga burokratikoek, segurtasun juridikorik ezak edo pizgarri ekonomikorik ezak, eta horrek lurraldearen kudeaketa aktiboa moteltzen du.

Horri gehitu behar zaio, fanatismo klimatikoaren politikak sustatzeko bere ahaleginean, gobernuak ibai-hesiak eta presa suntsitzea bultzatzen duela, suteak hedatzean eustorma gisa jardunen luketena eta suhiltzaileei sua itzaltzen lagunduko lieketenak. Ibaiak Lehengoratzeko 2023-2030 aldirako Estrategia Nazionalaren bidez (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak egina), Gobernuak onartu du 2018tik 2023ra bitarte 423 oztopo transbertsal eraitsi direla. Nafarroan hainbat presa suntsitu izanak, Segoviako Molina Minguela-n gertatutakoak edo Badajozko Valdecaballeros-eko presa eraitsi izanak, adibidez, agerian uzten dute politika horiek zer eragin duten landa-ingurunean eta, bereziki, hurbileko suteak itzaltzeko ura erabiltzeak duen potentzian.

Zigor-arloan, Zigor Kodearen 351. artikulua ezartzen du 10 urtetik 20 urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaiola pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jartzen duen sutea eragiten duenari; arrisku hori ez badago, baina suteak baso-masa bati eragiten badio, zigorra urtebetetik 5 urte artekoa izanen da, eta isuna hamabi hilabetetik hemezortzi hilabete artekoa (352. artikulua). Hala ere, zigor horiek gogortu egin litezke, delitu-praktika horiek egiteko asmoa burutik kentzeko eta gaitz horren aurrean herritarrak kontzientziatzeko.

Mendien ohiko kontserbazioa eta garbiketa jabe-ei badagokie ere, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 44. artikulua administrazio publikoari esleitzen die baso-suteak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko neurrien plangintza, koordinazioa eta betearazpena. Era berean, Konstituzioaren 149.1.29 artikulua Estatuari esleitzen dio segurtasun publikoaren arloko eskumena, eta horrek legitimatzen du Babes Zibileko Sistema Nazionalaren barruan koordinazioa indartuko duen estrategia nazional bat taxutzea.

2025eko suteen tamainak agerian uzten du beharrezkoa dela ia soilik suteak itzaltzean oinarritzen den eredu bat alde batera uztea eta prebentzio-politika integral baterantz, mendiaren kudeaketa aktiborantz eta lurralde-egituraketarantz egitea. Gobernuak esparru juridiko bat sustatu behar du jardura tradizionalak berreskuratzen laguntzeko, hala nola abeltzaintza estentsiboa, baso-aprobetxamendua eta azpiegitura hidrikoen kontserbazioa. Neurri horiek, suteak prebenitzeaz gain, biztanleria landa-ingurunean finkatzen, elikadura-subiranotasuna bultzatzen eta Espainiako lurralde-kohesioa indartzen laguntzen dute.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu erantzun bateratu bat eman dezaten suteak prebenitzeko eta suteei erantzuteko, Babes Zibileko Sistema Nazional baten esparruan, hondamendi horien aurreko erantzuna modu bateratuan egituratzeko; horretarako, behar diren funtsak eta plangintza nazional bat bideratuko dira, inplikaturako administrazio guztien arteko koordinazio ona ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu babes zibileko kidego guztien eta suhiltzaileen lana koordinatzeko aukera emanen duten jarduketako

protokoloak eta langileen araubidea bateratu ditzaten, dauden bitarteko guztien koordinazioa bermatuko duena, edozein dela ere toki-, autonomia- edo estatu-lotura, eta neguko prebentzio-lanen garrantzia udako berezko itzaltze-lanekin parekatu ditzaten, suteen aurkako borroka integrala errazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu suhiltzaileei eta larrialdi-zerbitzuei erantzun eraginkorra eta segurua bermatzeko behar diren baliabide materialak, teknologikoak eta giza baliabideak eman diezazkieten.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu metodo tradizionalak susta ditzaten, hala nola abeltzaintza estentsiboaren artzaintza, suebakiak egitea, mendiak garbitzea, sastrakak kentzea edo egurra biltzea, mendeetan zehar gure basoak garbi mantendu baitzituzten eta baso-suteek gure ingurune naturalean zuten inpaktua murrizten lagundu baitzuten.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu suteei aurrea hartzeko eta suteen aurka borrokatzeko arloan sortzen ari diren teknologietako inbertsioa eta txertaketa susta ditzaten, metodo tradizionalen osagarri gisa.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Ura-Plan Nazional bat susta dezaten, arroen arteko interkonexioa ahalbidetuko duena, azpiegitura hidrikoak modernizatuko dituena, urtegi berrien eraikuntza sustatuko duena eta suteak prebenitzen lagunduko duten ibilguen garbiketa bermatuko duena.

7. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Zigor Kodearen 352. artikuluan lurralde nazionalako mendietan edo baso-masetan suteak eragiten dituztenentzat aurreikusitako zigorrak gogortu ditzaten.

8. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu lehendik dauden eta erabilera potentziala edo aitor-tua izan dezaketen ibai-azpiegituren eta -hesien inventario bat egin dezaten, suteak itzaltzera bideratua, azpiegitura horien mantentzea bermatzeko behar diren neurriak gauzatzeko, haien suntsipena edo hondatze-egoera saihestearren.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu sute-gaietan unibertsitateen, ikerketa-zentron eta babes zibileko agintarien arteko lankidetzaz susta dezaten, suteen aurreko erantzuna hobetzea ahalbidetuko duten tresna digital berriak sortzeko.

10. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu aitor

eta indartu dezaten gure nekazariak eta abeltzainek Espainia landatarrean eta hustuan biztanleria finkatzea eta hazkunde ekonomikoan egiten duten lan estrategikoa, elikadura-segurtasuna kalitate goreneko nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren bitartez, gure Nazioaren elikadura-subiranotasuna eta suteen prebentzioa gure mendietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## 11-26/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz.

Gure komunitatean gero eta proiektu kultural gehiago dago. Artistak, musikariak, idazleak, diseinatzaileak, arte eszenikoetan diharduten pertsonak, eta dozenaka diziplina gehiago, Nafarroako kultura-eskaintza osatzen dutenak. Askotarikoak bezain interesgarriak diren proiektu horiek finantzatu beharra dago gauzatu daitezen. Departamentuaren aurrekontuak eta lehia-konkurrentziak berez ez dute inoiz dagoen eskaria aseko.

Gaur egun, Mezenasgoaren Legearen babesean, badago Kultura Departamentuaren webgune bat mezenasgoa sustatzeko atal bat duena: MECNA proiektuak. Atal horretan, herritarrei dei irekia egiten zaie Nafarroako kultura-proiektu ugari horien mezenas izan daitezen. Nafarroako mezenasgoak ahalbidetu du proiektu askok argia ikustea.

Hala ere, uste dugu departamentuak tresna berrien bidez birbideratu/eguneratu ditzakeela mezenasgoa eta haren finantzaketa. *Matchfunding*-az ari gara.

Aski ezagunak dira *crowdfunding*-plataformak, ekintzaileei finantzaketa modu pribatuan bilatzen laguntzen dietenak, batez ere mikromezenasgoetan oinarrituta, beren proiektuak aurrera atera ditzaten. Plataforma horietan, edonork nahi duen proiektuari ekarpen bat egin diezaiokio, proiektua aurrera ateratzeko behar den gutxieneko zenbate-

ko ekonomikora irits dadin. Horrela finantzatu dira liburuak, komikiak, jokoak, film laburrak, musika-diskoak eta are pelikularen bat ere.

*Matchfundinga* da, herritarren ekarpenak *crowdfunding*-kanpainen bidez jasotzeaz gain, administrazioaren laguntza ekonomiko gehigarria jasotzen duten proiektuen finantzaketa kolektiboa.

Funtzionamendua erraza da: oinarria da artistek, taldeek edo entitateek beren proiektuak aurkezteko web-plataforma bat izatea, baldintza honekin: partikularren edo enpresen bidez lortzen baldin bada departamentuak ezarritako finantzaketaren gutxienezko portzentajea, departamentuak konpromisoa hartzen du proiektua gauzatzea bermatuko duen beste portzentaje bat ordaintzeko. Lortu beharreko portzentajeak nahiz departamentuak egin ditzakeen ekarpenak hainbat faktoreren arabera ezarriko lituzke departamentuak, hala nola proiektuaren aurrekontu osoa, proiektuaren interesa edo deialdian zehazten den beste edozein.

Adibidez: entitate batek bere inguruari buruzko kultura-argitalpen bat egin nahi du, 10.000 euroko kostua izanen lukeena. *Matchfunding*-plataforman sartzean, horrelako proiektu baterako gutxienez kostuaren % 60ko finantzaketa lortu beharko lukeela ezarri da. Ekarpen pribatuei esker gutxienezko hori lortu ondoren, departamentuarentzako azken kostua gainerako % 40a izanen litzateke, baina gerta liteke proiektuak halako interesa sortzea non modu pribatuan lortu baitu finantzaketaren % 100.

Aurretiazko esperientziak daude beste administrazio batzuetan, hala tokikoetan (esate baterako, Madrilan edo Donostian) nola autonomikoetan (esate baterako, Gipuzkoan edo Katalunian), eta askotarikoak izan dira probatu den tokietan. Enpresa-ekintzaitzatik hasi eta jaialdi bat egin arte.

*Matchfunding*-plataforma bat sortuta urtero deialdi bat egiteak ahalbidetuko luke:

– Gure komunitatean mezenasgoari bultzada bat ematea.

– Finantzaketa pribatuak proiektu kopuru handiagoa lortzea. Mikromezenasgoak jende askok ekarpen txikiak egitean oinarritzen dira, ekarpen horiek biderkatu ahal izateko.

– Ekarpen bat egiten duen orok baliatu ahal izatea mezenasgo-legearen onurak. Ekarpena zein ere den, legeak onura fiskalak jasotzen ditu gure erkidego mezenasentzat.

– Departamentuak proiektu gehiago lortu ahal izatea.

– Departamentuak berak plataformaren bidez ematen dien publizitatearen onuradun izatea proiektuak.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du 2027an *matchfunding*-deialdi pilotu bat sor dezan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 26an

Foru-parlamentaria: Daniel López Córdoba

**11-26/MOC-00023. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoen adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten baitu nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoari eragiten dion planteamendu oro**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Irati Jiménez Aragón andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten ditu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoen adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten du nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako

nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoari eragiten dion planteamendu oro. Mozioa 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/MOC-00163. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebidetaren obrak lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan**

*LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2026ko apirilaren 1ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebidetaren obrak lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebidetaren obrak lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00011. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita egungo landa-eskolaren egoera berariaz aztertzeko mahai bat bultzatzen da**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2026ko apirilaren 1ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita egungo landa-eskolaren egoera berariaz aztertzeko mahai bat bultzatzen da. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Landa-eskolaren egungo egoerari buruzko berariaz aztertzeko mahai bat bultzatzen da, Hezkuntza Departamentuak, "Landa Eskolen Sareak" eta hainbat gizarte-eragileren ordezkariak osatua, hala nola Nafarroako Udal eta Kontzejuen

Federazioak, Gu Pirinioa elkarteak eta Cederna Garalur-ek, besteak beste.

2. Txosten berri bat egin dezan Landa Eskolen Sareak gaur egun dituen behar eta eskariekin eta etorkizuneko perspektibekin.

3. Herrien eskaerei erantzuteko hartu beharreko neurrien egutegia egin dezan.

4. Despopulazio-arriskuan dauden herrien hezkuntza-arloko dirulaguntzak eskuratzen lagundu dezan, azpiegitura horiek hobetzeko. Neurri espezifikoa izanen da, hala badagokio, dirulaguntzak jasotzeko oinarriak aldatzea”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/DEC-00022. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Par- lamentuak bat egiten baitu Parkinsonaren Mundu Egunaren ospakizuna- rekin**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egin du Parkinsonaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta ekitaldi bat egingen du apirilaren 14an, 11:00etan, ANAPARrekin batera, nahasmendu horri buruz sentsibilizatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak babesa ematen die ANAPARek urte osoan eta, bereziki, haren urteurrenaren ospakizunetan abian jarritako jardueri.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du gaitasun horren ikerketan eta haren tratamenduaren hobekuntzan inbertitzearen garrantzia eta premia.

4. Nafarroako Parlamentuak bere egoitzaren fatxada urdinez argiztatuko du heldu den apirilaren 11n, hori baita ANAPAR identifikatzen duen kolorea”.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko maiatzaren 15eko 15:00ak arte** luzatzea.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Konstituzio Auzitegiko lau magistratu-postu huts betetzeko bi hautagai izendatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko maiatzaren 15eko 15:00ak arte** luzatzea.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-26/SDC-00001. 2026ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2021eko otsailean, Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeko kideek eta Gizarte Entitateen Plataformak “2021-2030 aldirako Pobreziaren eta Desberdinkeriararen aurkako Nafarroako Ituna” sinatu zuten, aurrera egite aldera Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 2015ean onetsitako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak ezarritako norabidean. Itunean, besteak beste, honakoak jasotzen dira:

“Nafarroako Parlamentuak Garapenerako Hezkuntzaren arloko proiektuen deialdiari eutsiko dio, eta Parlamentuaren aurrekontuaren % 0,7ra iritsiko da 2024. urterako”.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren aurrekontu indardunak 48207 “Garapenaren eta elkartasunaren arloko jardueretarako dirulaguntzak” aurrekontu-aplikazioa jasotzen du, bere zenbateko osoaren % 0,7aren kreditu baliokidea duena.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzaitzeta eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, 2026ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia eta horren oinarri arautzaileak onesteko. Espedientea txosten juridikoarekin eta Kontu-hartzaitzak egindako gastu-fiskalizazioarekin osatu da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Legea da Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntza guztietarako arau-esparru komuna. Lege horretan, printzipio orokorrez gainera, dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura ezartzen da.

Hori horrela, 2026an Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizatorako proiektuak egiteko dirulaguntzen araubidea ezartzen duten oinarriak ezarri eta argitaratu beharra dago, bermatzeko bete egiten direla, dirulaguntza horietan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako printzipioak.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako hau ERABAKITZEN DU:

1. 2026ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia onestea.

2. Guztira 117.000,00 euroko gastua baimentzea, Nafarroako Parlamentuaren 2026ko ekitaldirako gastu-aurrekontuko 48207 “Garapenerako eta elkartasunerako jardueretarako dirulaguntzak” partidaren kargura.

3. Erabaki honen eranskinean jasotzen diren deialdiaren oinarri arautzaileak onestea.

4. Agintzea erabaki hau eta bere eranskinak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezten.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANSKINA

#### Oinarri arautzaileak, 2026ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntza-proiektuak eta sentsibilizatorako ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdiarenak

##### Lehena. Xedea eta helburua:

Nafarroako Parlamentuak lanean jarraitzen du, aurreko ekitaldietan bezala, garapen jasangarrirako helburuak lortzen eta mundu zuzenagoa, bake-tsuagoa, toleranteagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzen laguntzeko. Xede horrekin, dirulaguntza-deialdi hau onesten du, Nafarroan Garapenerako Hezkuntzako eta sentsibilizazioko esku-hartzeak egiteko. Dirulaguntzen helburua izanen da garapen-bidean dauden herrialdeek pairatzen dituzten problemekin zerikusia duten alderdietan eta horien zergatietan sentsibilizatu edo prestakuntza ematea, bai eta mundu globalizatuari buruzko ulermena erraztea ere, jarrera kritikoa eta errealitatearekin konprometitua ernaraziz, txirotasunaren aurkako borrokarekiko konpromisoa eta erantzukidetasuna sortuko dituen. Proiektuek lagungarriak izan beharko dute elkartasuna, justizia soziala, garapen jasangarria eta genero-berdintasunaren moduko balioak sustatzeko, Nazio Batuen 2030 Agendarekin bat.

Horretarako 117.000,00 euro bideratuko dira, Nafarroako Parlamentuaren 2026ko ekitaldirako gastu-aurrekontuan berariaz onetsitako partida honetatik: 48207 “Garapenaren eta elkartasunaren arloko jardueretarako dirulaguntzak”.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1. artikularekin bat etorriz, deialdia norgehiagoka-araubidean izapidetuko da.

#### **Bigarrena. Entitate onuradunak:**

Honako betekizun hauek betetzen dituzten entitateak izaten ahalko dira dirulaguntzaren onuradun:

- Bere izaeraren arabera legez eraturako pertsona juridikoa izatea, eta inskribatuta egotea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarena den Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Erregistroan (AECID).

- Nafarroan egoitza soziala edo ordezkari itza iraunkorra izatea.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatueta azaltzen diren egoeretako batean ere ez egotea.

- Sexu edo generoa dela-eta diskriminatzailetzat jotzen diren lan-arloko jokabideak gauzatu edo toleratzeagatik zehatuta edo zigortuta ez egotea administrazio-ebazpen irmoz edo epai judicial irmoz.

Onuradun izan ahalko dira, halaber, elkartuta aurkezten diren entitateak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badituzte eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoa betetzen badute.

#### **Hirugarrena. Esku-hartzearen betekizunak:**

- Helburu gisa edukitzea lehen oinarrian jasotakoa.

- 2026ko ekitaldian exekututzea. Hala ere, dirulaguntzaren xede den jarduna ohikotasunez garatzen den urte-aldia ez datorrenean bat aurrekontu-ekitaldiarekin –esaterako, eskola-ikasturtea–, jarduera horretarako dirulaguntzak urte-aldi horretara moldatzen ahalko dira eta, halakoetan, zilegi izanen da jarduera 2027ko ekainaren 30erako amaitzea. (Inguruabar hori dirulaguntza-eskaeran justifikatu beharko da).

- Jarduerak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan egiten dira.

- Nafarroako Parlamentuak diruz laguntzeko gehieneko zenbatekoa: 12.000,00 euro.

#### **Laugarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna:**

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira jarduera garatzeko lor litezkeen beste batzuekin, berdin delarik haien emailak beste administrazio publiko batzuk, beste entitate publiko nahiz pribatu batzuk edo partikularrak izatea, nazionalak zein nazioartekoak.

Hala ere, ezein kasutan ez da zilegi izanen emandako dirulaguntzen zenbatekoa hainbestekoa izatea non, bere horretan nahiz beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuei edo dirulaguntzaren xede den jardueraren baliabide berekiei batuta, gainditu egiten bailuke onuradunak egin beharreko jardueraren kostua.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea:**

Entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskaera bat aurkeztu ahalko du. Eskaeratzat joko dira bai bakarka aurkeztuak bai entitate-elkarte baten parte izanik aurkeztuak. Entitate batek bakarkako eskaera bat eta beste entitate batzuekiko elkarte egini-ko beste bat aldi berean aurkezten baditu, bi eskaera horiek deialditik kanporatuak izanen dira.

Eskaera entitate interesdunaren legezko ordezkariak aurkeztuko du, telematikoki, Parlamentuaren egoitza elektronikoa horretarako prestatutako sarbidean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun baliaduneko epean gehienez ere.

#### **Seigarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Dirulaguntza eskatzeko, Egoitza Elektronikoa ezartzen den eskabidea beteko da, deialdian adierazitako ereduaren arabera (I. eranskina), eta bertan entitate eskatzaileak adierazi behar du bigarren oinarrian ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela.

Entitate eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

##### 1) Dokumentazio orokorra:

a) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziakoa den Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean kokatuta dagoen ordezkariaren edo egoitzaren aipamenarekin. Ziurtagiria deialdi hau argitaratu baino urtebete lehenago jaulkitakoa izanen da gehienez ere.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, entitatearen ordezkariak digitalki sinatua, non adieraziko baita ezen entitate eskatzaileak bete egiten dituela erakunde onuradunaren izaera lortzeari begira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako betekizunak (II. eranskina).

c) Entitateen elkarteen kasuan, eskaera elkar-teen izenean aurkeztuko du haren ordezkari edo ahaladunak. Halakoetan, entitate bakoitzaren dokumentazio banakatuaz gain, honako hauek aurkeztuko dira:

c.1) Entitate-elkarteen eratzte-agiria. Elkartek nortasun juridiko berekirik ez badu, eratzte-agirian espresuki jaso beharko da ahalordedun edo ordezkari bakarraren izena, zeinak izanen baitu elkarreak onuradun gisa izanen dituen bete-beharrak betetzeko bezainbesteko ahalordea. Halaber jaso beharko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aurreikusitako preskripzio epea amaitu arte elkarrea ez degiteko konpromisoa.

c.2) Honako hau azaltzen duen agiria: elkarteko entitate bakoitzak proiektuaren exekuzioan zer funtzio eta eginkizun hartuko dituen bere gain, horiek egiteko konpromisoarekin, elkarteen izenean eta haren kontura; eta elkarteko entitate bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa.

Agiri horiek modu digitalean sinatu beharko ditu entitate bakoitzaren ordezkariak.

d) Ordainketa transferentzia bidez jasotzeko eskaera (baldin aldeztu aurretik aurkeztu ez bada, edo aldatu egin bada Nafarroako Parlamentuak iraganen emandako dirulaguntzak ordaintzeko erabili izan den banku-kontua)

e) Emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa aldeztu aurretik ordaindu beharrezkoa den kasuetako entitateei dagokienez, 9.1 oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskaerak ez baditu ezarritako betekizunak betetzen, interesdunari esanzen zaio ezen hamar eguneko gehieneko epean akatsa zuzendu edo aginduzkoak diren dokumentuak aurkeztu behar dituela, eta orobat ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela, aurrez ebazpena emanda, zeina jaulki beharko baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan.

Baloraziorako aurkeztu den dokumentazioa inolaz ere ez da zuzendua izanen.

## II) Baloraziorako dokumentazioa:

### A. Esperientzia:

a. Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzaturako Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuen taula zerrendaduna (III. eranskina).

b. III. eranskinean adierazitako dirulaguntzak emateko ebazpenaren kopia, edo agiri baliokidea.

### B. Estrategia instituzionala:

a. Baloratu beharreko atalak zehazten dituen agiria (IV. eranskina)

b. Baloratu beharreko jarduketak eta, kasu bada, hamahiru II oinarrian zehaztutakoa justifikatzen duen dokumentazio estrategikoaren kopia.

C. Esku-hartzeari buruzko oroitidazki teknikoak. Gutxienez ere, V. eranskinean jasotako informazioa izan beharko du eta gehienez ere 30 orrialdekoa izanen da. Hura transkribatzeko Arial 11 letra erabiliko da, 1 lerroartean. Berdintasunaren aldeko eta bazterketaren kontrako hizkera erabiliz idatzi beharko da. Pertsonen buruzko datu guztiek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

D. Esku-hartzearen oroitidazki ekonomikoa: gastu-partiden justifikazioa, azalpena eta aurrekontua. (Kalkulu-liburu bat erantsiko da, Excel-en, aurrekontuko datu guztiekin. Gastu bakoitzeko, zer partidari egozten zaion eta zer jarduerari dagokion adieraziko da).

Langile-gastuak ere baldin badaude, jardueraz jarduera xehakaturik aurkeztu beharko dira, horietako bakoitzean ustez zenbat ordu sartuko diren adierazita, bai eta ordu bakoitzaren zenbatekoa eta guztira zenbat eginen duen ere.

### **Zazpigarrena. Gastu diruz lagungarriak:**

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalarrik gabe erantzuteaz gain jarduera hura burutzeko ezarritako epearen barruan egiten direnak. Gastu diruz lagungarrien eskuratze-kostua ez da inoiz izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

Deialdi honi dagokionez, ez dira gastu diruz lagungarritzat joko inbertsio gastuetara bideratutako diru kopuruak (ekipoak, gailu elektronikoak, garraio-elementuak, lursailak, eraikuntzak eta abar), ez eta zeharkako kostuak edo kudeaketa kostuak ere.

Baldin eta proiektuak aurreikusten badu erakusketak egitea, jarduera horri (argazkiak, diseinua, inpresioa, panelak...) egotzi beharreko gastuaren

zenbatekoak ezin izanen du gainditu emandako dirulaguntza osoaren % 50.

**Zortzigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura antolatzeko, instruitzeko eta ebazteko eskumena duten organoak:**

Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako eta Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko teknikariek osatutako balorazio-batzorde batek antolatuko du prozedura. Kide anitzeko organo horrek izanen du eskaerak ebaluatzeko ardura, eta emanen duen irizpena loteslea izanen da.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua izendatzen da instrukzio-organo. Instrukzio-organoak, eskaeren ebaluazioa ikusirik, ebazpen-proposamena eginen du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berariaz hartutako erabakiaren bidez ebatziko da dirulaguntzen ematea, instrukzio-organoak proposatutako txostena oinarri hartuta.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi dela ulertzen ahal da.

**Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren ordainketa:**

1. 1. Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baliabide nahikorik ez izatea behar bezala frogatzen duten entitateen kasuan, dirulaguntzaren ordainketa bakar eta aurreratua eginen da, diruz lagundutako jarduera behin-behinekoz finantzatzeko. Horretarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsita, entitatearen edo elkartearen ordezkariak digitalki sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinean adieraziko baitu jarduera egiteko baliabide nahikorik ez dagoela.

2. Gainerako entitateei aldeztu aurretik ordainduko zaie emandako dirulaguntzaren % 60 adinako zenbatekoa. Emandako dirulaguntzaren zenbateko osora iritsi artekoa diruz lagundutako proiektua amaitutakoan ordainduko da, ordainketa bakarrean. Aldeztu aurretik, entitate onuradunak justifikatu egin beharko du egindako jarduera, hurrengo puntuan ezarritakoaren arabera eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 32. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Dirulaguntzaren aldeztu aurretiko ordainketa deialdi hau ebaztearekin batera eginen da, 11.e)

oinarriari adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Dirulaguntza egiazki ordaintzeko, beharrezkoa izanen da entitateak aurkeztua izatea "transferentzia-abonua eskatzeko agiria", diru-sarrera egin behar den banku-entitateak behar bezala beteta.

**Hamargarrena. Dirulaguntzaren justifikazioa:**

1. Gehienez ere esku-hartzea amaitu ondoko hilabetean aurkeztuko da dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa, honako agiri hauek osatua:

- Entitate onuradunaren legezko ordezkariak digitalki sinaturiko erantzukizunpeko adierazpena, justifikazio-txostena osatzen duten agirietan jasotako datu guztien egiazkotasunari buruzkoa.

- Esku-hartzearen oroitidazki teknikoak, dagozkie egiaztapen-iturriekin, hala behar denean.

- Oroitidazki ekonomikoak, non azalduko baita esku-hartzearen aurrekontua nola beteko den. Halaber, kalkulu-orri bat aurkeztuko da, exekuzioan eginiko gastu guztiak banan-banan eta zenbakituta xehakaturik, zer jarduerari dagozkion eta nor den finantzatzailea adierazita.

- Nafarroako Parlamentuaren dirulaguntzaren kargura eginiko gastu eta ordainketa guztien ziurtagiriak. Gastuak frogatzeko, fakturak eta ordainagiriak aurkeztuko dira, edo gainerako frogagiri baliokideak, merkataritzako trafiko juridikoan baliokoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak. Langileen gastuak frogatzeko, hila-beteko laburpenak ere aurkeztuko dira, proiektuari egozten zaion pertsona bakoitzaren ordutegi eta jarduerarekin.

Agiri guztiek eginbide-zigilua izanen dute, eta bertan adieraziko da Nafarroako Parlamentuak finantzatu dituela jarduerak. Eginbideak jasoko ditu, gutxienez, "Nafarroako Parlamentuak finantzatu" aipua eta Nafarroako Parlamentuak emandako dirulaguntzaren kargura finantzatutako zenbatekoa edo ehunekoak.

Nafarroako Parlamentuarena ez den finantzaketarekin eginiko gastuen kasuan, entitateak berak jaulkitako ziurtagiri bat aurkeztuko da, funts pribatuen kasuan, edo zenbatekoa eta proiektua zehazten dituen aldeko ebazpenaren kopia, bestelako dirulaguntza publikoen kasuan.

- Entitate onuradunaren legezko ordezkariak digitalki sinaturiko adierazpen espresua: ea proiektuak beste laguntza edo dirulaguntzarik jaso duen, eta, hala baldin bada, jasotako zenbatekoen eta horien jatorrien xehetasunak.

Aurkeztutako agirietan oinarrituta, balorazio-batzordeak egin den jarduerari eta horren justifikazioari buruzko txosten bat bidaliko dio instrukzio-organoari. Txosten horri jarraikiz, instrukzio-organoak proposamena eginen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, exekutaturiko ekintzaren justifikazioa onets dezan kasua bada, justifikazioa onets eta ordainketa agin dezan, edo bestela itzulketa-espeditente bati ekitea proposa dezan, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35. artikulua ezarritakoaren arabera.

2. Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioak irudiak eta/edo izaera pertsonaleko datuak baldin baditu, entitate onuraduna izanen da edukiaren eta, zehazki, bertan ager litezkeen pertsona fisikoen datu eta irudien erantzule bakarra. Hori dela-eta, alde aurretik eduki beharko du irudietan ageri diren eta/edo datu pertsonalen titularrak diren pertsonen baimen espresu eta balioduna, edo horiek erabiltzea legitimatzen duen beste edozein oinarri juridiko.

**Hamaikagarrena. Entitate onuradunen betebeharrak:**

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Esku-hartzea beren eskaeran deskribatu duten moduan egitea.

Esku-hartzearen gauzatzea aldrebesten edo zailtzen duten gorabeherak gertatuz gero, zilegi izanen da jarduera horiek egiteko epeak luzatzea. Horretarako, epea luzatzeko eskaera bat aurkeztu beharko dute, azaltzen duena esku-hartzea zergatik ezin den gauzatu hasiera batean aurreikusitako epean, bai eta esku-hartzea amaitzeko epe berria ere. Eskaera telematikoki eginen da, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa horretarako prestatutako sarbidean -Administrazio-izapideak-Dirulaguntzak eskatzea Edonola ere, jarduerak egiteko gehieneko epea 2027ko ekainaren 30ean amaituko da.

b) Baimena eskatu eta edukitzea diruz lagundutako jarduketan aldaketak egin ahal izateko, baldin eta entitate onuradunaren kontrolatik at dauden inguruabarrengatik hasierako jarduketa aldatu behar bada eta horrek helburuetan eta emaitzetan eragina badu, edo, helburuak eta aurreikusitako emaitzak aldatu gabe, aldaketak aurrekontuaren aldaketa bat badakar, partida bakoitzaren exekuzioan gastuen igoera bat ekartzen duena, partida bakoitzerako onetsitako aurrekontuaren % 20 baino gehiagokoa.

Zortzigarren oinarrian aipatzen den balorazio-batzordeak ebatziko du aldaketa egiteko eskaera. Eskaera egoitza elektronikoen bidez eginen da, horretarako ezarritako atalean.

c) Betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela frogatzea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzen badituzte, horren berri ematea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

e) Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena jaulkitzen den unean beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik edukitzea.

Behin deialdia ebatzita, entitate onuradunei eskatuko zaie aurkez ditzatela ebazpenaren egunean indarrean dauden ziurtagiri positiboak, kasuko Ogasunak (Nafarroako Foru Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo foru ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak jaulkiak, hurrenez hurren frogatuko dutenak entitate onuradunak beterik dituela bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

f) Nafarroako Parlamentuarekin elkarlanean aritzea proiektuaren berri ematen, Nafarroako iritzi publikoa garapenerako lankidetzari buruz sentikortzeko.

Nafarroako Parlamentuak entitate onuradunei dei eginen ahalko die Nafarroako Parlamentuan eginen den ekitaldi publiko batean parte har dezaten. Bertan, entitate onuradun guztiek diruz lagundutako proiektuen exekuzioa aurkeztuko dute.

g) Dirulaguntzaren jatorria publiko egitea: jardueren berri emateko erabiltzen den material grafiko eta inprimatuan (liburuxkak, iragarkiak, web bannerrak eta abar) Nafarroako Parlamentuaren logotipoa agertuko da, diruz lagundutako entitatearen logotipoari emandako trataera berarekin.

Nafarroako Parlamentuak ez du bere gain hartzen proiektuaren exekuzioa dela-eta argitaratutako materialen edukia.

Entitate onuraduna izanen da erantzule bakarra jarduerak egitearen kariatara erabilitako eta/edo editatutako argazkiak, irudiak, testuak, ikus-entzunezkoak edo bestelako materialak direla-eta egon litezkeen jabetza intelektualeko esku-bideen errespetuari dagokionez.

Banaketa publikora, alokairura edo salmentara bideratutako eta edozein euskarritan erreproduzitzen ahal den material-mota oro ekoitzi edo editatuz gero, lege-gordailuaren, jabetza intelektuala-ren eta ISBN – ISSNren betekizunak bete beharko dira kasuan-kasuan.

h) Onartzea egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egin ditzan organo dirulaguntza-emaileak.

i) Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen- eta kontrol-jarduketetarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.

j) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

k) Entitate onuradunak eman zaion dirulaguntzari uko egitea erabakiz gero, bi hilabeteko epean egin beharko dio uko, laguntza eman zaiola jakinarazi zaion egunetik zenbatuta, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa aurkeztutako idazki baten bidez.

Itzuli egin beharko du alde zuzenetik ordaindutako zenbatekoa, Kontu-hartzailera eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuetatik adieraziko zaion prozeduraren bidez. Zilegi izan da uko eginiko zenbatekoa esleitzea, behin Nafarroako Parlamentuak jasota, hamahirugarren oinarrian eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu arren aurrekontuan diru erabilgarri aski ez egoteagatik laguntzarik eskuratu ez duten proiektuei.

#### **Hamabigarrena. Erantzukizuna:**

Entitate onuradunei dagokie proiektuko jarduerak egiteagatik eta edukiarekiko erantzukizun eksklusiboa. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren erantzukizun orotatik salbuetsita egonen da editatutako materialei edo jarduerak egiteko moduari dagokienez.

#### **Hamahirugarrena. Balorazio-irizpideak:**

Eskaerak 0 eta 100 puntu bitarteko eskalan baloratuko dira, irizpide hauei jarraituz:

##### I. Esperientzia (20 puntu gehienez):

Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatuak izan diren garapenerako hezkuntza eta sensibilizazioko proiektuak exekutatzeko entitate eskatzaileak izandako esperientzia baloratuko da. Proiektuaren kopurua eta diruz lagundutako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

- 1-4 proiektu bitarte: 2,5 puntu.
- 5-9 proiektu bitarte: 6 puntu.
- 9 proiektu baino gehiago: 8 puntu.

Lortutako dirulaguntzen zenbatekoa:

- 0-10.000 euro bitarte: 2 puntu.
- 10.001-80.000 euro bitarte: 6 puntu.
- 80.000 euro baino gehiago: 8 puntu.

Balorazioa egiteko, proiektu exekutatuak deklaratu beharko dira, III. eranskina betez (eranskin horretan adierazitako informazioaz bestelakorik ez da kontuan hartuko). Gainera, deklaraturako jarduketek puntuak jaso ditzaten, haien frogagiriak helarazi beharko dira, emate-ebazpenaren kopia edo dokumentu baliokidea atxikiz. (Erantsitako agiri bakoitza izendatuko da III. eranskineko “identifikatzailea” zutabearen adierazitakoaren arabera).

Apartatu horretan lorturiko puntuazio osoa 1,25ekin biderkatu ahalko da, baldin eta esku-hartzea Nafarroako Parlamentuak aurreko bi ekitaldietako (2024, 2025) edozeinetan finantzatu izan bazen eta esku-hartzearekin jarraitzeari buruzko balorazio positiboa egiten bada. Horretarako, eskaera-inprimakian labur azaldu beharko dira ordura arte lorturiko emaitzak eta jarraipenerako arrazoiak.

##### II. Estrategia instituzionala (10 puntu bitarte):

- Arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako plan bat edukitzea edo horretarako urratsak jasota edukitzea entitate eskatzailearen estrategia instituzionalean bertan (5 puntu).
- Ingurumen-plan estrategiko bat edo ingurumen-kudeaketako jokabideen zehaztapen bat edukitzea (5 puntu).
- 50 langile baino gutxiagoko plantilla daukaten entitateentzat bakarrik: genero-berdintasuneko plan bat edukitzea. (5 puntu).

Baloraziorako, bete egin beharko da IV. eranskina, eta baloragarri diren jarduketetarako frogagiriak aurkeztu beharko dira. Behar bezala identifikatuta daudenak bakarrik hartuko dira kontuan. Berdintasun-plana aurkezten baldin bada, plana balora dadin aurkeztu beharko da, genero-berdintasunari buruzko planaz gain, entitatearen legezko ordezkariak eginiko ziurtagiria, zeinean adieraziko baita zein zen, 2025eko abenduaren 31n, egiazko langile-kopurua.

##### III Proiektuaren kalitatea (55 puntu, gehienez):

- a) Proiektua gauzatuko den egoeraren eta ingurunearen azterketa (10 puntu gehienez).
- b) Kronograma (5 puntu gehienez).
- c) Helburuaren, emaitzen eta jardueren koherentzia (10 puntu gehienez).

d) Adierazleak eta egiaztatze-iturriak (10 puntu gehienez).

e) Herritarrek parte hartzea eta boluntariorza sustatzea (5 puntu gehienez).

f) Genero-ikuspegia jasotzea (10 puntu, gehienez).

Proiektua lagungarria da emakumeen eta haiek munduan duten kokalekuaren ikusgaitasunerako; gaitasunen sendotzea eta emakumeen autonomia sustatzen ditu.

g) Esku-hartzearen garapenean eragin dezaketen kanpoko arriskuen edo faktoreen analisisa (5 puntu, gehienez).

IV. Aurrekontuaren deskribapena (15 puntu, gehienez):

– Aurrekontua deialdian jasotakoari egokitzea (5 puntu, gehienez).

– Gastuaren beharrak justifikatzea: giza-baliabideak, baliabide materialak... (10 puntu, gehienez).

Ez dira baietsi 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerak.

Eskatutako dirulaguntza bera emanen da. Lehentasun-ordena ezarriko da lortutako puntu kopuruaren arabera, eta dirulaguntzak esleituko dira

harik eta aurrekontu-izendapenaren mugara iritsi arte. Prozedura horren arabera dirulaguntza lor dezakeen azken proiekturako eskatutako diru kopurua handiagoa bada haren finantzaketarako eskueran dagoen diru kopurua baino, instrukzio organoak zilegi izanen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 20. bis artikuluan ezarritzen denari jarraituz, onuraduna premiatzea bere eskaera birformula dezan, eman daitekeen dirulaguntzara doitzearren konpromisoak eta baldintzak.

#### **Hamalagarrena. Errekurtsoak:**

Deialdi hau oinarri arautzaile hauen bidez eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren bidez arautzen da.

Honen aurka, honako errekurtsu hauetako bat aurkezten ahalko da:

– Aukerako berraztertze-errekurtsua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

– Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo horretako salan, bi hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.





